

IPARRALDEKO MENDIAK

GIPUZKOA



G•28 Karakate-Irurutzeta- -Agerre Buru

Karakate-Irurutzetako gailurrak eta hegoaldera, Agerre Buru aldera, duten zabalkuntza enklabe interesgarria dira naturaren aldetik. Haien balioa are handiagoa da inguru osoan biztanleria handiko gunek daudela eta komunikazio-bide garrantzitsuek eta industrialdeek inguratzen dutela kontuan hartzen badugu; beraz, lasaialdirako naturaz gozatzeko gune bat da ingurunekeo biztanleentzat.

Tontorrek abeltzaintza estentsiborako erabiltzen diren txilardiek, garo-lekuek eta larreek estaltzen dituzte. Mendi-hegaletako konifera-sailen artean pagadi-zerrenda zabal bat dago eta bertan baso-ingurune hauek berezko dituzten hegazti eta ugaztun asko daude.



G•29 Murumendi

Goierriren bihotzean kokaturik dagoen Murumendiko tontor arrokatsua bere altueragatik baino bere tradizio eta mitologiagatik da aipagarriagoa. Gailurretik Goierrri, Ernio eta Aralarren ikuspegi bikainaz gozatu dugu, Txindoki dotorea ikusten dugula.

Paisaiak barnean hartzen ditu ipar-mendebaldeko hegalean aldapa ia bertikala duten tontorreko harkaitzak eta basoz estalitako lursailen artean jaisten diren Eula eta Berostegiko erreken ibarbideak.

Zuhaitz-inguruneak era askotakoak eta aberastasun handikoak dira; horien artean haritzak, pagoak, gaztainondoak, urkiak eta haltzak ikus daitezke eta guztiek giro magikoan murgiltzen gaituzte, Mariren bizileku ugarietako bat den inuguru hori kondairez bustitzen duen giro magikoan. Bertako flora bariatate eta interes handikoa da. Kantauriko isurialdean ezagutzen den *Saxifraga losae* izeneko eskualdeko endemismoaren populazio bakarra bertan dago.